

OROITZAPENAK

BORDARI



Egia esan, Errenderiak badu neretzat alako erakarpin atsegin bat. Izan ere Lezo urrean daka; ta, daki-zutenez txit famatua bertako Kristo gurutz iltzatua. Ondarribiarrak jaiera aundia zioten (diogu?), eta aur bat etzan gelditzen Lezoratu gabe. Jaio berriarentzat eskari bizi ta gartsuak, eta fedez ornituak, egin bide zituzten garai artan gure gurasoak. Bide batez, noski, egun-pasa alaigarri bat euren buruai emanaz.

Koxkortuta ere eraman ninduten; ondo gogoan dakat. Correoan Irun'go gel-tokian artu, lendabizi, ordea, zaldiak tiratutako tranbia Ondarribian artzen genduala. Gaintxurizketako tunelean sartzean, trena'ren txistua ta ke beltzak Jesus, zer ikara.

Bide luzea Irundik Errenderira; neri ala iduritzen orduan. Gel-tokitik irten orduko orko besa-motz, anka-bakarrak, elbarriak, agure ta atsoak; limosnatxo bat, arren, eskale. Bizi naizen arteño iraungo dute nerean orduko ikuskizun unkiagarri aiek.

Basilikako Kristo-gonadunak baiño geiago arritu ninduen, txakur aundi bat ozkaduratik sartuta, eskerak emanaz, burua jeixten zuan monagillo sotana gorridunak. Eskola lagunei orren berri eman ere azkar, urrengo egunean. Burua jetxi alajaña!

Esan bearrik ezdago plazako erroskilla, medalla-zintak, kandel eta jostaillu ikusketak ere asetzen zutela, erritik lenengo aldiz ateratzen zan aurra. Utzi dezadan Lezo. Etxerakoan «OLIBET» galleta fabrikari sartzen zan gure ama; galleta puzkatuak merkeagoak izan nunbait eta gure parteak jan eta sartzen giñan etxera. A, denbora aiek.

Aitarekin ere izandu nintzan bein batez. MATEO'nean bazkaldu genun; nik ordea angoo ollasko-ixterra baiño naiago OLIBET'eko Mariak.

Gaztearoan noiz-nai urbiltzen giñan, Jaizkibel barenna, Errenderira. Negu partean batez ere. Eta Topo'ko gel-tokiko ondoan zegoan euskal-kutsuzko etxe apain batek, baita ere barrua anpatu. Zoragarria zan.

Gerora, Errenderi'ko erria, maixu ta irakasle aurkitu genduan. Adiskide zintzo asko genitun. Mendizaleak giñan da, nola ez; Landarbaso, Urdaburu ta inguruak gureak genitun. Oroitzapen bat zuei illak zera-tenoi; Lizaso txistularia, Kortabarria, Gandi, Korta ta abar. Anai-arreba modura ere neska-mutillak ibiltzen giñan. Ta Madalenetan, merienda koxkor bat egin da gero, Zumardian (Oi, ura nolako!) «sotto voce» amaika kantu biotzi abestutako toki bedeinkatua. Sabin, (Eup!) oroitzen alaiz?

Eta gu ara ta aiek onara; aiek mendia guk itxasoa, Baionako barraraño. Beti alaitasunez, pake-ederran, umore-onean, anaitasunean.

Eta, Errenderia'kiko maitasunak diardu. Orduko lagunak lagunak ditut; zintzoak, leialak, maiteak.

Oraingo Errenderiya? Zer esango dut; bai ta ez, ez eta bai. Erria asko aunditu da. Aldakuntzak aundiak leku guztietan bezela. Alaere bere nortasuna ta jator-tasunaren erraiñuak gordetezen ditu. Ta, zeukanak daka ta maixu ta irakasle jarraitzen du. Xenpelar sortu zuan erria, oraindik ereintza onaren erria da.

Agur, errenderiar maiteok; jaiak ondo igaro.

*Agur, Errenderi
or dago, oraindik
«Panier-Fleuris»
Madalenetan
bertan,
bazkaltzeko asmotan;
zeok...*